



IRITSI DA AZKENEAN EHUNMILAK PROBA

Parte-hartzaileak gaur irtengo dira 18:00etan Beasaindik; Usabalen Ochoa de Olzaren dokumentala eskainiko dute > 2-3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2010-07-16

VIII. URTEA 2.053. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



AENOR-eko ordezkariak, Luz Emparanzak eman zien ziurtagiria Fraisoroko Laborategiko ordezkarietara. E. MAIZ

FRAISOROKO LABORATEGIAREN LANA SARITU DU AENOR- EK

ZIZURKIL Nekazaritza eta Ingurumen Laborategiak ISO 14001 egiaztagiria jaso du, «bikain ari delako ingurumenaren babesean» 6



Txintxarri abesbatzako kideek bota zuten suzuria. E. MAIZ

Txintxarriaren igoerarekin hasi dituzte Karmen jaiak

ALEGIA Jai alternatiboak, hala ere, herenegun hasi ziren; igandean amaituko dituzte festak 4

Zortzimilakoak gertuago Aranburu jauregian


TOLOSA Edurne Pasaban mendigoizalearen omenezko erakusketa zabalduko dute gaur 5

Goierriren bihotzean, paisaia kulturala eta naturala



◀ **SEGURA** [943 801749]
Ardixarra Etxea:
Erdi Aroko interpretazio zentroa.
Andra Mari Jasokundearen eliza
Ibilbidea hirigune historikoan zehar

[943 188203] **IDIAZABAL** ▶
Idiazabal Gaztaren
Interpretazio eta Dastatze Zentroa
Ondramuño gaztandegia



◀ **ZERAIN** [943 801505]
Ondare historiko eta kulturala
(herri museoa, gartzela eta eliza)
Energia berriztagarrien erabilera
(Larraondoko zerrategia)

BURDINAREN MENDIA
Aizpita Adieraztegia
Kiskaltze labeak
Polborina galeria



www.aldabe.com

GAILURRAK ATZEAN UTZIZ



Urola kostatik barrena Ernio (1.075 metro) igo ostean Tolosaldera jaitsiko dira Zelatunetik, Bidegoiandik, Albizurtik barrena, gero Tolosara ailegatzeko; hemendik Altzora joango dira. HITZA

Kirola » Gaur 18:00etan Beasaindik abiatuko da Ehunmilak, Europan 11.000 metroko maldan positiboa gainditzen duen Ultra Trail bakarra.

ESTI EZEIZA

Iritsi da horrenbeste prestakuntza eta lanen ondoren, azken hilabeteetan egindakoaren emaitzak frogan jartzeko eguna. Lasterkariak gaur, 18:00etan abiatuko dira Beasaingo plazatik.

Goierriko eskualdearekin batera, Tolosaldea, Urola Kosta eta Urola Garaia zeharkatuko dituzte. Bertako tontorrik altuenak igarotzeko: Txindoki (1.346 metro), Ganbo (1.402 metro), Aizkorri (1.528 metro), Erlo (1.026 metro), Izazpi (967 metro) eta Ernio (1.075 metro). Proba hau burutzeko 48 ordu izango dituzte parte-hartzaileek, eta tarte horretan, ibilbidean zehar jarritako egongo diren igarotze-kontrolatetik pasa beharko dute. Antolatzaileen aurreikuspenen arabera, helmugariristen lehenak 24 ordu baino gutxiago behar izango

ditu. Honenbestez, bost bailara eta 29 herri zeharkatuko dituzte lasterkariak, tartean eskualdeko sei: Bidegoian, Albiztur, Tolosa, Altzo Abaltzisketa eta Amezketa.

48 ordu iraungo ditu gehienez probak eta bi egun hauetan, boluntarioek egin beharreko lana handia baldin bada ere, aurreko egunetan, prestaketetan ere denbora ugari pasa behar izan dute. Horren adibide, lasterketako 168 kilometroko balizatze, 6.000 baliza berezi eta foku jarri behar izan dituztela, ibilbidea seinalezatzeko. Ehunmilakerako sortu den boluntario taldeak gogor egin beharko du lan gaurtik igandera bitartean ere, zazpi anoa gune antolatu baitituzte, bertan 20.000 litro likido eta 3.000 kilogramo fruta banatuko dituztelarik.

Sendagile, erizain eta 20 anbu-

lantzia ere prest egongo dira ibilbidean zehar. 30 fisioterapeuta ere lasterketako puntu ezberdinetan kokatuko dira korrikalariari laguntzeko eta bere zerbitzuak eskaintzeko.

Iristeko arazorik ez

Proba egunetarako autobus zerbitzu ezberdinak eta aparkalekuak atondu dituzte antolatzaileek. Hala, hiru parking jarri dituzte: bata, Renfeko muellean (Bernedeo parkingeko goialdean), bestea, CAF - Senperoko aparkalekua eta azkenik, Indarreko aparkalekua. Aparkaleku berezi hauetan 900 autorentzako tokia izango da.

Zuzenean jarraitzeko aukera internet bidez

Lasterketa webgunetik ere jarraitu ahal izango da. Lasterketa abian jarri eta seigarren orduetik aurrera ordulaurdenero korrikalari bakoitzaren denborak webgunean publikatuko dira.

Ehunmilak lasterketako kronometrai lana No Limit kataluniarrek burutuko dute. Sport-Iden sailkapen sistema orokorra erabiliko dute kronometraia egiteko. Lasterketako edozein unetan mailakako sailkapenak kontrol gune-etako pasoa eta ibilbideak webgunean prest egongo direlarik.

Sistema honek segurtasun osoa bermatzen du datuen tratuaren eta igarotze gune guztietatik pasatze denborak egiaztatzen ditu. Bestalde, korrikalari bakoitzak helmugara iristean denbora partzialen berri izango du. Lasterkari bakoitzak txip bat eramango du igarotze gune guztietatik pasatzen dela egiaztatzeko.

Usabal kiroldegia probako gune garrantzitsu izango da

Aisia » Parte-hartzaileen beharrak asetzeko ez ezik, ikusleentzako ere izango dira ekitaldiak bertan, gaur iluntzean eta gauean.



Usabal kiroldegia. E.E.

ERREDAKZIOA

Lasterketako ibilbidean zehar, Tolosako Usabal kiroldegia gune garrantzitsua izango da. Lasterkariak Kiroldegian, dutxak, hamakak eta poltsa edukiko dituzte, ibilbidearen erdia-edo egin ondoren indarrak berreskuratzeko.

Parte-hartzaileentzaz ez ezik, gainontzeko ikusleentzaz ere gune garrantzitsua da hau. Izan ere, mendi lasterketarekin lotuta, Inaki Ochoa de Olzaren dokumentala ikusteko aukera izango da gaur gauean, Usabal kiroldegian. Proiekzioa 22:15ean izango da Bide Bide jatetxearen terrazan.

Mendi proiektzio ezohikoa izango da. Inaki Ochoa de Olzaren mendi erreskatea ikusi baitaiteke bertan. Ochoa de Olza 2008ko maiatzean hil zen Annapurnan bere hamahirugarren 8.000ko saiakeran. Honez gain, antolatzaileek aurreratutakoaren arabera, «oso jende gutxi ikusi duen beste bideo bat ikusteko aukera ere izango da, sorpresa txiki batekin».

Txolarre iratiak ere Ehunmilak egitasmoarekin bat egitea erabaki

du. Hori dela eta, gaur 20:30etik aurrera, saio berezi bat eskainiko du Kiroldegitik. Zuzenean, lasterketa nola doan jakiteko aukera izango da irratibidez, eta honen inguruko informazio guztia jaso. Eskualdeko irratilibrekoak goizera arte ariko dira lanean.

Bestalde, gauerdian, musika eta erromeria doinuak ere izango dira Usabalen. Kantuki musika talde gaztea zuzenean entzuteko aukera izango da. Gainera, Bide Bide jatetxe eta edaritegia gau guztian zehar zabalik egongo da, bertan itxaroten daudenen egonaldia horren luze ez dadin egin.

Aurreikuspenen arabera lehen-dabiziko lasterkariagoizaldeko ordubiak aldera iritsiko da, eta azkena, larunbatean, arratsaldeko hiru-eretan. Beraz, denbora ugari dago, lasterketa jarraitu ahal izateko.

Usabaletik, jarraian, Amaroako auzotik aterako dira baserri-bide-etatik igo eta Ollaungo gaina inguraturatuz Altzoko errepedera iristeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Oinez edo korrika 168 kilometro zeharkatuko dituzte parte-hartzaileak. s.g.

Autobus zerbitzua ikusle eta parte-hartzaileentzat

Garraioa » Ibilbide guztitik barrena, probak irauten duen bitartean, autobusak ibiliko dira jendea batetik bestera eramateko.

Ehunmilak mendi lasterketarako autobus zerbitzu bereziak jarri ditu antolakuntzak. Batetik, Beasain kanpoaldean jarriko diren aparkalekuak Beasaingo erdigunearekin lotzeko, eta bestetik, lasterketa igarotzen den herri ezberdinak lotzeko.

Zerbitzu honekin, auto pribatuaren erabilera murriztu nahi dute. Antolatzaileak, ikusleak nahiz parte-hartzaileak eramateko balioko dute. Izan ere, min hartutako, zein beste arazoengatik erretiratu diren parte-hartzaileak abiapuntu-

ra, hau da, Beasainera, inguratzeke erabiliko baitituzte.

Hori dela eta, autobusak erabiltzeko garaian lehentasuna izango dute parte-hartzaileek eta antolakuntzakoek.

Honenbestez, une jakin batean, autobusaren zain, ibilgailuak onartu ditzaizkeen baina pertsona gehiago baldin badaude, lehenak autobusean sartzen, parte-hartzaileak eta antolakuntzakoak izango dira. Ikusleek, hurrengo iritsi arte itxaron beharko dute.

Parte-hartzaileen eta antolakuntzaileen atzetik, parte-hartzaileen laguntzaileek dute lehentasuna, eta azkenik, ikusleek.

Azken hauek, autobusak erabili ahal izango dituzte, lasterketa puntu ezberdinetan ikusi ahal izateko.

» ESKUALDEKO PARTE-HARTZAILEAK

EHUNMILAK PROBA (168 kilometro)

Banaka

- **Aitor Agirre Urkia.** Villabona, Aizkardi mendi elkartea.
- **Iker Aizpuru Imaz.** Tolosa, Alpino Uzturre mendi elkartea.
- **Josetxo Azpeitia Altuna.** Villabona, Aizkardi mendi elkartea.
- **Juan Ramon Bastarrica Larrauri.** Tolosa, Atarrabi MT elkartea.
- **Ricardo Cabanillas Arevalo.** Tolosa
- **Jose Luis Ferreira Mouro.** Asteasu, Sprint elkartea.
- **Javier Garduño Tena.** Anoeta.
- **Pedro Garduño Tena.** Anoeta.
- **Arkaitz Goikoetxeaundi Zabala.** Anoeta.
- **Joseba Gurpegi Agesta.** Alkiza, Club Vasco de Campin.
- **Iker Karrera Aranburu.** Zizurkil, Alpino Uzturre elkartea.
- **Jacinto Lajas Vazquez.** Irura, Oargi mendi elkartea.
- **Asier Mugika Briz.** Elduain, Alpino Uzturre mendi elkartea.
- **Jose Manuel Villegas Marques.** Tolosa, Alpino Uzturre mendi elkartea.

Taldeka

- **Aitzondo taldea.** Txomin Otegi, Iñaki Sarasua eta Jokin Txapartegi asteasuarrak osatzen dute taldea.
- **Erretxinak taldea.** Juan Jose Aizpun (Tolosa), Juan M^a Sagredo (Ibarra) eta Miguel Angel Zumetak (Biriata) osatzen dute taldea.

GOIERRIKO BI HANDIAK PROBA (82 kilometro)

- **Fermin Arregi Irusta.** Tolosa.
- **Jon Delgado Tolosa.** Tolosa.
- **Jose Mari Etxeberria Garmendia.** Zizurkil.
- **Monica Grajera Jorba.** Alkiza.
- **Lontxo Iriarte Tellejero.** Ikaztegieta
- **Txomin Isuntza Zelaia.** Asteasu
- **Jaime Orbeagoza Galarraga.** Albiztur.
- **Iraitz Zubeldia Mujika.** Abaltzisketa.

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balizki banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

» AUTOBUS ZERBITZUAK IBILBIDEAN ZEHAR

Lehendabiziko autobusa

■ **Beasain (18:30) - Zumarraga (19:00) (Ostirala, 2010-07-16).** Irteera orduak: 18:30 / 19:30 / 20:30.

■ **Zumarraga (19:00) - Beasain (19:30) (Ostirala, 2010-07-16).** Irteera orduak: 19:00 / 20:00 / 21:00.

Bigarren autobusa

■ **Zumarraga (21:00) - Azpeitia (21:40) (Ostirala, 2010-07-16).** Irteera orduak: 21:00 / 22:30 / 24:00.

■ **Azpeitia (21:40) - Zumarraga (22:20) (Ostirala, 2010-07-16).** Irteera orduak: 21:40 / 23:10.

■ **Azpeitia (24:40) - Tolosa (01:30) - Beasain (01:50)**

■ **Zumarraga (02:15) - Azpeitia (02:45) (Larunbata, 2010-07-17).** Irteera orduak: 24:40 / 02:45 / 04:40 / 06:35 / 08:30.

Lehendabiziko autobusa

■ **Beasain (02:00) - Lazkao (02:10) - Ataun SM (02:20) - Ataun SG (02:30) - Lizarrusti (03:00) (Larunbata, 2010-07-17).** Irteera orduak: 02:00 / 04:00 / 06:00 / 08:00 / 10:00 / 12:00 / 14:00 / 16:00 / 18:00 / 20:00 / 22:00 / 24:00.

■ **Lizarrusti (03:00) - Ataun SG (03:30) - Ataun SM (03:40) - Lazkao (03:50) - Beasain (04:00) (Larunbata, 2010-07-17).** Irteera orduak: 03:00 / 05:00 / 07:00 / 09:00 / 11:00 / 13:00 /


15:00 / 17:00 / 19:00 / 21:00 / 23:00 / 01:00.

Hirugarren autobusa

■ **Tolosa (04:30) - Amezket (04:50) - Abaltzisketa (05:00) - Larraitx (05:05) - Zaldibia (05:20) - Ordizia (05:30) - Beasain (05:35) - Tolosa (05:55) (Larunbata, 2010-07-17).** Irteera orduak: 04:30 / 06:00 / 07:30 / 09:00 / 10:30 / 12:00 / 13:30 / 15:00 / 16:30 / 18:00 / 19:30 / 21:00 / 22:30.

Laugarren autobusa

■ **Beasain (04:00) - Idiazabal (04:20) - Etxegarate (04:45) - Otzaurte (05:00) - Zegama (05:30) - Zerain (05:45) - Mutioloa (06:00) - Liernia (06:00) -**



TOLOSako UDALA

IRAGARKIA

Udalbatzak, 2010eko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, hasierako onspena eman zion Urbanizazio, eraikuntza eta ingurumen, paisaia eta naturaren kontserbaziorako Udal Ordenantzari.

Proiektua, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, HOGOITA HAMAR EGUN (iragarki honen azken argitaratzea egin eta biharamunetik kontatzen hasita) jendaurrean jarrita egongo da, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, bere 99. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Irargari hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berrian, Hitza eta Diario Vascon argitaratuko da.

Espedientea, inork aztertu nahi badu, Plaza Zaharra, 6-B-ko Hirigintza Bulegoan egongo da, aipameneko epean. Alegazio edo erreklamazioak Alkatetari zuzendu behar zaizkio eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Udalbatzak erabaki zuen, era berean, Ordenantza hau behin betiko onartuzat jotzea, baldin eta ezarri den epe horretan inork ez badu erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztzen.

Tolosa, 2010.eko uztailaren 14an. ALKATEA.



TOLOSako UDALA

IRAGARKIA

Udalbatzak, 2010eko ekainaren 28an egindako Osoko Bilkuran, hasierako onspena eman zion Etxebizitza Tasatuen Udal Ordenantzako 4., 5., 6., 7., 9., 10., 11. eta 16. artikuluen aldaketari.

Proiektua, interesatuek beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, HOGOITA HAMAR EGUN (iragarki honen azken argitaratzea egin eta biharamunetik kontatzen hasita) jendaurrean jarrita egongo da, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoak, bere 99. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Irargari hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berrian, Hitza eta Diario Vascon argitaratuko da.

Espedientea, inork aztertu nahi badu, Plaza Zaharra, 6-B-ko Hirigintza Bulegoan egongo da, aipameneko epean. Alegazio edo erreklamazioak Alkatetari zuzendu behar zaizkio eta Udaletxeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Udalbatzak erabaki zuen, era berean, Ordenantza hau behin betiko onartuzat jotzea, baldin eta ezarri den epe horretan inork ez badu erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztzen.

Tolosa, 2010.eko uztailaren 14an. ALKATEA.

Txintxarriaren igoerarekin hasi dira Karmen jaiak

Alegia » Atzo izan zen Txintxarriaren igoera, eta 50 urte bete dituen Txintxarri abesbatzak izan zuen pregoia irakurtzearen ardura.

OIHANA IGUARAN

Atzo eman zitzaion hasiera ofizialki Alegiako Karmen jaiak, bezperan alternatiboak hasi ostean. Jende mordo bildu zen Udaletxeko plazan, Txintxarriaren igoerarako. Aurten 50 urte betetzen dituen Txintxarri abesbatzak eman zien hasiera jaiak, kantuan. Baina urteurrena behar bezala ospatzeko, igandean ekitaldi berezia antolatu du abesbatzak, txistularien alardearekin batera.

Jai hasiera emateko suzuria arratsaldean bota bazuten ere, goizetik hasiak ziren festak, egitarau zabalarekin. Izan ere, «aurten festak lau egunetara trinkotzea egokitu da eta hainbat ekitaldi goizera pasa behar izan ditugu» azaldu du Mainer Jauregi jai batzordeko kideak.

«Jubilatu eta haurren eguna»

Atzo suziaren aurreko ekitaldiak haur eta jubilatuak izan ziren, goizeko jubilatuaren martxa, haur jolasak eta apar festa kasu.

Gero zahagiardoa izan zuten, ohitura den bezala, eta jarraian, kontzertuak.

«Aurten kontzertuen gaua indartzea zen gure erronka» aitortu du Mainer Jauregi, eta horregatik egin dute aurten ahalegin berezia kontzertu erakargarriak antolaten.



Jaiak hasiera emateko suzuria Txintxarri abesbatzak bota zuen. E. MAIZ

Gaurkoa izango da egun sendoenabatzordearen ustez, urtetik urtera indartsuago eta ikusgarriago dagoen Sutargi dantza taldearen emanaldiarekin bereziki, baina baita gainerako ekitaldiekin ere, kontzertuak esaterako.



Apar festan haur ugari bildu ziren atzokoan. E. MAIZ



Herritarrek gustura bildu zituzten balkoitik botatako goxokiak. E. MAIZ

» EGITARAUAK

JAI OFIZIALAK Gaur, hilak 16

- **09:00.** Herriko Txistularien eta trikitilarien diana herriko kaleetan zehar.
- **09:30.** Giroarte dultzaina taldearen diana.
- **11:00.** Iraunkorrek txaranga kalez kale ibiliko da.
- **12:30.** Alegiako Sutargi dantza taldearen emanaldia herriko plazan.
- **16:00.** Umeen Santos Futbol Torneoaren finala.

- **17:00.** Haur jaialdia eskolako atarian. Jarraian, merienda eta joakoak izango dira.
- **19:00.** Hortzuga taldearen *Olympikas 2012* izeneko kale-antzerkia.
- **21:00.** Zahagiardoa. Ardoa Gaztetxeak jarriko du eta postrea, al-diz, Udalak.
- **22:30.** Pilota partidak: Iñaki Artola-Berñat Zabala eta Berñat Urretbizkaia-Erik Jaka kade-teak; Ainhoa Garmendia (Alegia)-Nagore Arozena (Lizartza) eta Uxue Fernandez (Urretxu)-Ainhoa Montes (Intxaurren); eta Ugaitz Renobales-Asier Mintegi eta Iurgi Larrañaga-Eneko Galarraga seniorrak.
- **00:00.** Humus talde tolosarraren eta We are standard taldearen kontzertuak.

JAI ALTERNATIBOAK Gaur, hilak 16

- **Eguerdian.** Bazkari herrikoia egingo da.
- **Jarraian.** Zahagiardoa izango da bertaratutako guztientzat.
- **Ordu txikitán.** Gau elektronikoa izango da goizaldera arte.

Galdaragintza
BURNI, S.L. Ondo pasa jaietan!
Errotalde, 24 • Tel.: 943 653112 • Faxa: 943 655532
ALEGIA

ALEGIA
943 653 097

ISKINA
edaritegia
San Juan kalea 59

ETXEBERRIA
edaritegia
San Juan kalea 51

TXINDOKI
AUTOBUSAK

FESTA ONAK PASA
HERRIKOAK ETA
KANPOKOAK!

ALEGIA
Tel.: 943 65 30 12

Lagundu Udalbiltzaren kontrako epaiketaren gastuei aurre egiten

DENON ARTEAN
DINERUAK ASKE!

TURKAL HERRIA

Bai

3035 0071 63 0711124600

Pasabanen eskutik zortzimilakoak ezagutzeko aukera

Mendia » Gaur zabalduko dute mendigoizalearen omenezko erakusketa Aranburun; bihar Edurne Pasaban bertan izango da.

ERREDAKZIOA

Munduko hamalau zortzimilakoen erronka gandituta, hamaika izan dira Edurne Pasaban mendigoizale tolosarrak jaso dituen sari, omenaldia eta izendapenak. Oraingo honetan, bere omenez erakusketa bat jarri dute Aranburu jauregian. Gaur zabalduko dute, eta irailaren 12ra arte egongo da ikusgai, astelehenetik igandera, 17:30etik 20:30era. Inaugurazio ofiziala bihar izango da, 12:30ean, Pasaban bera, bertan izango delarik.

Ez dira asko munduan 8.000 metroko gailur bat igotzeko aukera izan dutenak. Beraz, altuera horietan zer sentitzen, ikusten edo entzuten den gutxi batzuek baino ez dakite. Horixe da, hain zuzen ere, erakusketa honen helburuetako bat, zortzimilakoak herriarrei gerturatzea.

Ikus-entzunezkoak eta materiala

Erakusketa argazkiz dago osatua hein handi batean. Espedizio guztietan zehar ateratako irudiak biltzen ditu, eta tolosarrak tontor bakoitzak beretzat duen esanahia eta bertan bizitakoak eta gogoetak azaltzen ditu.

Horretaz gain, Edurne Pasaban, Asier Izagirre eta gainerako espedizioekideek erabili duten materiala ere ikusgai egongo da, hala nola, kanpin denda, botak, buzoak, motxilak, bastoiak, sokak, pioletak, eguzki-plakak edota kanpalekue-tan jartzen diren banderatoak.

Erakusketako gela batzuetan espedizioetako bideoak ere ikusgai izango dira etengabe, eta hamalau zortzimilakoekin zerikusia duten gazte nahiz helduentzako liburak ere jarri dituzte.

Saria bisitarien artean

Bestalde, erakusketara gerturatzen direnek saria ere eskuratu ahaliko dute, Aralar Kirolak dendak mendiko botak zozketatuko baititu. Irailaren 12ra arte izango da erakusketa, eta zozketa hurrengo egunean egingo dute.



Goian, argazkiak euren azalpenekin. Behean, espedizioetako materiala. i.t.

Laburrak

Txernobilgo umeek Topic bisitatuko dute bihar

GIZARTEA » Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroak Bikarte elkarte-kideen bisita izango du bihar. Hain zuzen ere, 123 pertsona joango dira, eta horien artean uda Euskal Herrian igarotzera etorri diren Txernobilgo 47 haur eta hauek etxean hartu dituzten familiak. 11:00etan iritsiko dira Topic-era, eta lehendabizi museoa bisitatuko dute, eta ondoren txotxongilo tailerretan hartuko dute parte. Jubilatuen egoitzan bazkaldu ostean, 18:30ean, txotxongiloen emanaldi bat izango dute ikusgai, *Tamborecos* izenekoa. Kolonbiako Teatro Comunidad taldeak abesti tradizionalak, rondak eta jokoak erabiliko dituzte, besteak beste, antzezlan honetan.

Done Jakue bideari buruz antzerkia, gaur, 22:00etan

KULTURA » Mexikoko Unibertsitate Autonomoko ikasleek osaturiko Masca Teatro taldeak *Done Jakue erromeria* (Romeria a Santiago) antzezlan eskainiko du gaur, Plaza Berrian, 22:00etatik aurrera. Lan honek Done Jakue bideak historian zehar izan duen lekua irudikatzen nahi du txotxongilo eta zuzeneko musikaren bidez. Xakobeko urtea dela-eta antolatuta dituzte ekitaldiok Done Jakue bidea igarotzen den lurraldeetatik.



Ezkerrean, mendiko botak. Eskuinean, kanpalekua irudikatzen, kanpin dendarekin. i.t.



Bihar izango da Edurne Pasaban erakusketa ikusten. i.t.



sarituak

Gaurko irabazlea:
Bakarne Telleria Ugartemendia (Irua)

Afaria jasotzeko, Azokako txarteldegira hurbildu harpidedun txartelarekin.

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira

harpidedunen
TXOKOA hitza



EAE-ko lehen AENOR-en egiaztagiria Fraisoroko Laborategiak eskuratu du

Zizurkil » Nekazaritza eta Ingurumen laborategiak, ingurumen kudeaketaren AENOR ISO 14001 egiaztagiria jaso du.

ERREDAKZIOA

Fraisoroko Nekazaritza eta Ingurumen laborategiak, atzo, AENOR-ek ematen duen, ingurumen kudeaketaren ISO 14001 egiaztagiria jaso zuen.

Fraisoroko Laborategian bertan izan ziren Rafael Uribarren, Landa Ingurumenaren Garapeneko diputatua, Luz Emparanza, AENOR-eko Euskal Herriko zuzendaria eta Domingo Merino, Fraisoroko Laborategiaren zuzendaria.

AENOReko Luz Emparanzaren eskutik jaso zuen ziurtagiria, Rafael Uribarren Diputatuak. Uribarrenen esanetan: «ziurtagiri honek erakusten du Fraisoroko Nekazaritza eta Ingurumen Laborategia bikain ari dela ingurumenaren babesean. Balia-bideen erabileran, arrazionalizazio irizpideak ezartzen baitituzte. Energia berriztagarrien alde egiten dute, I+G+B proiektuak bultzatzen dituzte eta emisio kutsakorren murrizpena bultzatzen baitute» azpimarratu zuen.

Ingurumen bereizgarri hau lortzen duen Euskal Autonomia Erkidegoko lehenengo laborategia da. Estatuan ere, horrelakorik lortu duten gutxi dira.

Fraisoro, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laborategi publiko bat da. Landa inguruneagaratzeko xedez, ingurumenari buruzko ebaluazio analitikoak eta aholkulari lanak egiten ditu. Bere bezero ditu: Landa Garapeneko Departamentua nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiko gainerako departamentuak, beste erakunde batzuk eta



Emparanza, Uribarren eta Merino egiaztagiria jasotzeko unean. E. MAIZ

zerbitzua eska dezaketen zenbait partikular.

Zentroaren helburua, garai berrietara egokitzea da. Zerbitzu hobetua eskainiz, bezeroen premia eta itxaropenarekin bat etorriko dena eta administratziotik bultzatu

tuko diren I+G+B proiektuetan lagundu nahi du.

Ebaluazio lanabes on batek teknika analitiko aurreratuetan behar ditu eta baita, prestakuntza berezia eta instalazio egokiak ere. Hartara, ingurumenaren egoera eta

nekazal elikagaien kalitatea eraginkorki neurtu dezakete.

Ziurtagiria lortzeko idatzizko ziurtagiriak behar dira

ISO 14001 ziurtagiria lortzeko, beharrezkoa da idatzizko ziurtagiriak edukitzea: Legezko baldintzak betetzea. Jarduerak sortzen dituen hondakinen kudeaketa egokia egitea. Laborategia den aldetik, horrek diru kostua du eta gizataldari lan handia eskatzen dio.

Berriztagarrien kontsumo amurriztea: elektrizitatea, gasa, papera, erreaktiboak,...

Praktiketako langileen prestakuntza ingurumenaren arduradun izan daitezten. Hornitzaileei, legezko baldintzak bete ditzaten eskatu eta baloratzea. Ingurumen Larrialdiaren plana. Hobekuntza helburuen plana. Sistemaren urteko berrikuspena eta AENOR-en urteko auditoria, barrukoa eta kanpokoa egitea.

AENOR ETA ISO 14001, INGURUMEN KUDEAKETAREN ZIURTAGIRIA

AENOR-en Ingurumen Kudeaketaren Sistemaren Ziurtagiria, ISO 14001, nazioarteko arauan oinarrituta dago. Munduan gehien zabaldua dagoen ingurumen kudeaketaren lanabesa da honako hau. 220.000 ziurtagiri daude ia 155 herrialdeetan banatuta.

AENOR 1986. urtean sortu zen erakunde pribatu bezala eta irabazi asmorik gabe. Hamaika herrialdeetan dago finkatuta. AENOR-ek, arau tekniko eta ziurtagiriaren bidez, enpresen, produktuen eta zerbitzuen kalitatea eta lehiakortasuna hobetzen laguntzen du.

Ingurumen ziurtagiri baten abantailak asko badira ere, hiru dira nagusi: konpromisoa modu zuzen eta sinesgarrian erakustea, energia, lehengai eta ur kontsumoa optimizatu eta prozesuak hobetuta onura ekonomikoak lortzea, eta legezko arrikuak murriztea. Horretarako baliabide egokiak erabiltzen ditu. Eragin horiek saihesteko, gutxitzeko edo kontrolatzeko, beti ere, arrazionaltasun sozio-ekonomikoarekiko oreka batean, etengabeko hobekuntzaren alde egiten.

» FRAISOROKO LABORATEGIAREN ZERBITZUAK

■ **Animalien Osasuna.** Abeltzaintza esparruaren behar analitikoak egiten ditu. Gaixotasunen diagnostia eginez, abereen osasuna hobetzeko.

■ **Urak eta Isurketak.** Plubiografo etako, ibaietako, arroetako, ureztatzeko eta hidroponiako uren, industria isurketen, zabortegetako lixibiadoren... kontrol analitikoak.

■ **Produktu fitosanitarioen eta kutsagarrien hondakinak.** Landa-re-osasunerako produktuak janari-produkzioan arazoak sortzen dituzten izurri eta gaixotasunak kontrolatzeko erabiltzen dira.

■ **Laborantzarako substratuak.** Lagin mota horien analisi zehatzak egiten dira, Normalizazioko Europar Batzordeko Arau Teknikoen arabera. Laborategiak, ENACek emandako egiaztapena du, substratuetan eta lur-hobetzekoetan parametroak analizatzeko.

■ **Landaketa zoruak.** Nekazaritza eta basogintzako lurren eta lur kutsatuen analisi fisiko-kimikoa egiten dute.

■ **Kirol zoruak.** Esperientzia eta ospe handia du kirol-zoruen arloan. Barne hartzen ditu: zoru, hondar, legar eta medeagarri organikoaren laginak. Futbollekoetan ez ezik, errugbiko, golfeko...

■ **Landareak.** Hainbat landare moten elikadura egoera ebaluatzeko aukera eskaintzen du.

■ **Animalien nutrizioa.** Bazka, pentsu eta lehengaien nutrizio balioa eta eransgarrien agerpena jakiteko analisi fisiko-kimikoak egiten dira. Baita animalia jatorriko substantziarik ote dagoen eta ongarri konposatuen osaketa mikrofotografikoa zein den zehazteko aukera ere eskaintzen da.

■ **Sagardo eta Txakolina.** Sagardo eta Txakolinaren kalitatea ezaugarri kontrola aurrera eramateko erabiltzen dira.

■ **Landare osasuna.** Landareek duten gaixotasun orri buruzko diagnostikoak egiten dituzte.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

N-1 errepideko trafikoa desbideratuko dute asteburuan

Villabona » Gaur 18:00etan hasi eta etzi 20:00ak arte iraungo dute aldaketek; lanek datorren asteburuan jarraituko dute.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide Azpiegituretak sailak argitu duenez, N-1 errepideko zorua berritzen hasiko dira gaur Villabonaren eta Andoainen artean, Irungo noranzkoan. Horiek horrela, gaur 18:00etatik aurrera N-leko zoruaren egitura birgaitzen hasiko direnez, Iruraren eta Andoainen arteko bi zatitan trafikoa desbideratuko dute. Aldaketak igandeko 20:00ak arte jarraituko dute. Lanak hurrengo asteburuan ere egingo dituzte.

Foru Aldundiak argitu duenez, milioi bat euro inbertituko dituzte N-1 errepideko zoruaren egitura birgaitzeko, Iruraren eta Andoainen arteko bi zatitan.

Lanen nondik norakoak

Aipatu moduan, gaur hasiko dira gaitzakadako zoruaren egitura birgaitzen errepidearen Irungo noranzkoan honako puntu hauetan: batetik, Iruran, 438 kilometro puntuan; Villabonan 442 kilome-

tro puntuan; eta bestetik, Villabonan 444 kilometro puntuan eta Andoainen 445 kilometro puntuan. «Horregatik asteburu honetan by-pass bat egin beharko da, bateragarriak izan daitezkeen lanak eta trafikoa eustea zirkulazioaren bi noranzkoetan», argitu du te. Asteburu honetan, hortaz,

luzeraz kilometro bat baino zertxobait gehiago duen galtzada zati batean egingo dituzte lanak Irungo noranzkoan, Villabonako A-15 autobideko sarreraraino. Hala, by-passa Gasteizko noranzkoko galtzadaren jarriko dute, zati horren bi muturretan dauden erdibiztalez baliatuta.



Villabona zeharkatzen duen N-1 errepide zaharra ere berritzen ari dira. E. MAIZ

» XEHETASUNAK

- **Errepidea.** N-1 (Irungo noranzkoan).
- **Zatia.** 444,020 kilometro puntutik 445,340 kilometro puntura.
- **Udalerriak.** Villabona, Aduna eta Andoain.
- **Egitasmoa.** N-1 errepideko zoruaren egitura birgaitzea 438 eta 442 kilometro puntuen artean eta 444 eta 445 kilometro puntuen artean.
- **Inbertsioa.** 948.000 euro.
- **Trafikoa izango duen eragina.**

- Trafikoa moztuko dute Irungo noranzkoan kilometro bateko zati batean. By-passa egingo dute Gasteizko noranzkoan.
- **Hasiera.** Gaur 18:00etatik aurrera.
- **Amaiera.** Etzi, igandea, 20:00ak arte.
- **Ordezko bideak.** Villabonan eta Adunan sartzeko Villabonako iparraldeko lotunea (N-1443). Ibilbide luzeetarako, aldez: AP-1/AP-8 eta A-15.

Astehelenean egingo dute Euskal Jaia antolatzen lehen bilera

Anoeta » 19:00etan bilduko dira udaletxean; aurtengoa Jaieren hirugarren edizioa izango da.

tzera gonbidatu ditu Udalak. Euskal Jaieren helburua «gure euskal nortasuna adieraztea» da batetik, eta «bertako eta inguruko nekazari-eri dabesa adieraztea» bestetik, Udalaren hitzetan.

Aurtengoa Jaia egiten duten hirugarren urtea izango da eta orain artekoetan bezala, datorren urrian ere jende asko biltzea espero dute. Iaz eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, baina hala ere, jende asko gurguratu zen ekitaldi desberdinetara.

Hauetan jendetsuena herri bazkaria izan zen, 300 bat pertsona bildu baitziren.

ERREDAKZIOA

Urriko bigarren igandean Euskal Jaia egingo dute Anoetan eta hori dela eta bilera egingo dute astehelenean, hilak 19, 19:00etan udal-eta beretan. Astehelenekoa lehen bilera izango da eta prestakuntzak egiten hasteko herriko talde eta herritar oro bertan parte har-



Iaz 300 bat pertsona bildu ziren herri bazkarian. HITZA

tolosaldeko hitza.iragarki.kilaburrak.com

Asteburuetan zehazki hitzak iragartzen diren iragarkiak. HITZA: www.tolosaldetikolaburrak.com (943-65569) telefono zenbakia

Higitzaileak

ETXERATZAK

Saldu
Tolosa. Tolosa Alde Zahararen aldea argitua. 50 m². Egitura onen. Prezioa 63.260 euro (25.500.000 peza). Interesaturik deitu 943-43.002 telefono zenbakia. Zuzeneko salmenta.

Tolosa. (Vith-Comandi) enkautzia barrika etxebizitzarekin (75m²). Promotorearen bidez zuzeneko salmenta. Sakalbe eta 2 lortu ardiak, egongela handia eta 2 logia. Argitua, 2 terraza eder ditu eta laurogeitara eta. Pesezioko salmenta. 658-72.92.66.

GARAJE/TRASTEROAK

Saldu.

Tolosa. Tolosari gaje

Itala salgai lanean auzoan. Interesaturik, deitu 658-70-43.18 telefono zenbakia.

Lana iragarkia

LAN IRAGARKIAK

PERSONAK ZARAU

Algoia. Neskak euskaratu

urabarriak zuzentzeko eskaintza. Tolosaldeko edo Gornin. Espetzializatzen, interesaturik deitu zenbaki honetan: 648-17.46.36.

IRAKASKUNTZA

Villabona. Ingelesko hizaki erakusten dituzten ikasleak. Taldetako irakaskuntza. Taldetako irakaskuntza. Taldetako irakaskuntza. Taldetako irakaskuntza. Taldetako irakaskuntza.

KANPOKOKAK

GUREAN

IRAGARKIAK

PIKIO KONTAKTUA

PSIKOLINGUA

Gasteiz. Gasteizko piztas

osteko bi lagunen bila nabli. Aldare inguruan, Alde Zahararen bitartean. Bi gela duen libre. Jende berria eta irabaztasunak dituen. Di enerturik. 200 euro + gastuak. Telefonoa: 609-59.46.52.

Ibilgailuak

FURCOMETAK

Saldu

Result master auto-lanabara. Bilatutako Eplara (dena homologia) 1. Jera leku indize bat egiten da 1,25 x 1,5 m. Bigarren eta hiru baki, 1,30 x 1,50 m neurria eta funtzionari sakabanatuta. U edagari-aldia (1700)

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA
Berezia 7 (lehen komertzio) + BEASAIN
943-16 20 48
Bisita lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

LAZKAO
IDIAZABAL ATAUEN
4 logia
1100.000 €
Jost Lasa, 4-betela - 26230 Lazkao - 943-88 37 36
www.lamy.lazkao.com

Arrieta

Arrieta (Beaskalzu) etxebizitza 3 logia, 2 terraza eta 2 logia. 555-72 52 52 telefono zenbakia.

Salbide
SALBIDE Higitzaile zerbitzuak
Bilaka kalea, 6 • 20800 Zarautz
Telef: 943 01 07 00 • Mug: 665 71 85 96
www.lamosalbide.com

Aizarnabaratz. 3 logia etxebizitza. 10 metro luze-ko irabaztasun. Oro geroz onen. 33.000.000 peza

Azarnabaratz. ALBARRA OINA. Etebiza erakilerri. 1 logia. 33.000.000 peza.

Zarautz. Aden Partu Lugia bako etxe handia. Altxa eta biko ederra. Irabaztasun eta ingulak. 47.000.000 peza.

Zarautz. Vista Alegria. 2 logia ditu. Terraza handia. Egokitua. 49.500.000 peza.

Zarautz. Koroa kalea. 3 logia eta etxebizitza luze eta onen. Terraza eta garapenera egon.

Zesta. Arroz behea. 2 logia eta etxebizitza. 28.000.000 peza.

Arrieta

Arrieta (Beaskalzu) etxebizitza 3 logia, 2 terraza eta 2 logia. 555-72 52 52 telefono zenbakia.

ETXEBILA
Higitzaileak
943-446166
ALDE ZAHARRA: 3 logia, egongela, sukaldea, bainuak, 8000.
ANARRA: 2 logia, sukaldea, egongela, bainuak, 8000.
IRIBARRI: 2 logia, sukaldea, egongela, bainuak, 8000.
IRIBARRI: 2 logia, sukaldea, egongela, bainuak, 8000.
IRIBARRI: 2 logia, sukaldea, egongela, bainuak, 8000.
IRIBARRI: 2 logia, sukaldea, egongela, bainuak, 8000.
IRIBARRI: 2 logia, sukaldea, egongela, bainuak, 8000.
IRIBARRI: 2 logia, sukaldea, egongela, bainuak, 8000.
IRIBARRI: 2 logia, sukaldea, egongela, bainuak, 8000.
IRIBARRI: 2 logia, sukaldea, egongela, bainuak, 8000.
IRIBARRI: 2 logia, sukaldea, egongela, bainuak, 8000.
www.etxebila.net
Tel: 943 44 61 66



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza/leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitza/Leitza beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Hasi da garagardoaren jai

VILLABONA • Atzo zabaldu zituen ateak Villabanako 14. Garagardo Azokak. Urtero legez Txermingo Ikastola-ko jolaslekuan atondu dute jai eta 900 pertsonen-

tzako toki dago bertan. Igandera bitarte, hortaz, 16 garagardo eta jaki desberdinak dastatzeko aukera izango da. **E. MAIZ**

A Agenda

Antzerkia

■ **Tolosa.** *Romeria a Santiago* antzezlan 22:00etan, Plaza Berrian.

Aurkezpena

■ **Villabona.** Remi Gogoan ekimenak *Remi, herriaren taupada* liburuaren aurkeztko du 19:00etan.

Azoka

■ **Tolosa.** 14. Garagardo Azoka Txerminen, 18:00etatik aurrera.

Ikus-entzunezkoa

■ **Tolosa.** Ehun Milak mendi lasterketarekin lotuta, Inaki Otxoa de Olzaren dokumentala ikusteko aukera 22:15ean Bide Bide jateko terraza.

Jaiak

■ **Alegia.** Karmen jaiak: 09:00etan herriko txistularien eta trikitilarien diana; 09:30ean Giroarte dultzaina taldearen diana; 11:00etan Iraunkorrek txaranga; 12:30ean Sutarri dantza taldea plazan; 16:00etan Umeen Santos Futbolito Torneoaren finala; 17:00etan Haur Jaialdia eskolako atarian; 19:00etan Hortzmugaren *Olympikas 2012* kale-antzerkia; 21:00etan zahagiardo bateratua; 22:30ean pilota partidak; 00:00etan Humus eta We are Standard. Jai Alternatiboak: eguerdian herri bazkaria; jarraian zahagiardoa eta ordu txikitian gau elektronikoa.
■ **Asteasu.** 20:00etan Santamariako festen hasiera: Tranpazulo-

ren igoera eta txupinazoa botako dute; 21:00etan herri afaria, ondoren Kupela taldearekin erromeria eta goizaldera txokolatea banatuko dute.

Musika

■ **Tolosa.** Mikel Andueza eta Iñaki Salvadorren jazz kontzertua Fronton kafetegian 23:00etan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112..

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

P Publiereportajea

Asteburu paregabea Goierri ezagutzeko


Asteburu honetan Goierri bisitatzeko eta gozatzeko osagai gehiago izango dira. Kirolzalea bazara, EHUNMILAK ultratrail lasterketa ikusteko aukera izango duzu, bai irteera eta bai helmuga Beasainen izango duena. Ostiral arratsaldeko 18:00etan hasita astebukaera guztia izango da lasterketa hori jarraitzeko aukera (www.ehunmilak.com).

Erdi Arora bidaia egin nahi baduzu, gerturatu Segurara, larunbat arratsaldean eta igandean egun osoan zehar Segurako herria eta bertako atariak Erdi Arora itzuliko dira, bi urtez behingo jaialdi ikusgarriarekin.



Segurako Erdi Aroko Jaiak. Irudikapen landua ertaroko hiribilduan.

Musikak ere izango du toki astebukaera honetan Goierri, Ataunen zehazki. Organo Barrokoaren Nazioarteko IV. Jaialdiaren azken kontzertua izango da San Martin elizan, larunbatean 20:00etan.



A Agurrak



Zorionak!

Enaitz Artola (5 urte).

Ahuntzak zaintzea eta bonboa jotzea gustatzen al zaizu? Muxu handi bat etxekoan partetik.

www.goierriturismo.com

OSKARBI

ABENTURA HASI DA...

OSKARBI

10:00-18:00
18:00-19:00

Abenturaren Bida
943 65 56 95 (943 64 12 00)
www.abenturarenbida.com